

Abstentzioa / Abstención

JON IURREBASO ATUTXA :: 20/02/2019

Rescatamos el presente artículo de hace unos meses, dada su actual vigencia.

[Euskara]

“2018-ko urriaren hasieran idatzi genuen (baita argitara eman ere) segidan doan abstentzioari buruzko iritzi artikulua. Hilabete hauetan handik eta hemendik gertakari aipagarriak gertatu direla bixtan da. Halere, iritzi artikulua batek bere mugak ditu. Aipatzen ez ziren Europar hauteskundeak eta aldatu diren datak bai kontutan hartu behar dira. Horretaz gain, betikoa azpimarratzen dugu: Euskal Herriak bere ibilbidea egin behar du eta hori Euskal Iraultza Sozialista du izena. Hori baino ez dago alternatibarik Euskal Herriko Langilearentzat eta batez ere Euskal langile klasearentzat”.

Abstentzioa

Behin eta berriz esaten digute maiatz inguruan egingo direla Hego Euskal Herriko udal hauteskundeak, diputaziokoak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eta forukoak Nafarroan. Hori ikustekoa bada ere, noiz egingo diren ez digu inongo kezkarik sortzen. Azken batean, lau urterik behingo hauteskunde aurreko ikuskizun hutsak besterik ez dira. Dirudienez hala da, eta guk ezin dugu ezer egin.

Aspaldidanik sumatutakoaren arabera, antzerki taldea bere osotasunean abian jarri zen, hartara, Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua desagerrarazi eta Sortuk alderdien legea onartu bezain laster “txintxoan” klubean sartu egin zen, horrenbestez, dinamika politiko-militarrak, herri borrokak, gizarte borrokak eta langile borrokak instituzio borrokarekin zuten uztardura eten egin zen. Azkenik, EH Bildu sareak baztertu egiten ditu borroka mota guztiak eta sistema barruan betirako sartzea erabaki zuen, erreformismoaren eta burgesia txikiaren estilo bete-betean, hau da, zirko instituzional, ekonomiko, errepresibo, mediatiko bidez okupatzen eta zapaltzen gaituen sistema barruan.

Argi eta ahalik eta laburren arituko gara: inork pentsatzen al du zertarako balio duen gure bozkak, baldin eta patronalaren gonbiterik kanpo gelditzen diren bakoitzean haserretu egiten badira? Hortaz, zer egingo dute euren gonbidapena jaso ahal izateko? Nork uste zuen talde errepresiboen kideak omenduko zituztenik, independentzia eta sozialismoaren aldeko borrokan ehunka eroriak ahazturik? Zer esan nahi du espainiar parlamentu osoarekin batera EH Bilduk sinatutako akordioak, zeinetan “segurtasun” indar espainiarrak “geure demokraziaren” eta “geure konstituzio espainiarraren” bermatzaile gisa agertzen diren? Zer dela eta, EEBBko ereduak hauteskunde demokratikoak irabazitakoan, zoriondu zuten Trump presidentea? Zergatik orain onartzen dugu, hasieran kontrako iritzia agertu bazen ere, apenas erabiltzen diren ibilgailuentzako pistak eraikitzea gure lurraldeko inguru paregabeetan? Udalbiltzaren desagertzea dela eta, espainiar subiranotasunari egindako entregaz edo amore emateaz bestelako azalpenik eman dezake inork? ESAITen desagertzearen inguruko azalpenik eman dezake inork?

Zergatik halako politika inklusiboak... aldebakartasuna edo horizontaltasuna eta dibertsitatea, azken batean, kapitala berrindartu eta beraren menpe egoteko maniobrak besterik ez dira. Bada, kokoteraino gaude. Berdin antzean gertatzen da gai posible eta ezinezkoekin, izan ere, posible den guztia da, hain justu, sistemari interesatzen zaiona, eta alderantziz. Hori bai Kasualitatea! Aski da, burgesia txikiaren argudioak darabiltzate klase borroka ezkutatzeke asmoz. Era berean, bandera horiak darabiltzate gerra inperialistak ezkutatu nahian.

Inork pentsatzen al du EH Bilduk euskal langileria azken muturreraino defendatuko duela, edo Ahal dugu/Podemos-ek zuzendaritzen txaleten hipotekekin? Inork pentsatzen al du Euskal Herriaren zatiketa onartuz (EH Bilduk eta EAJk sinaturiko estatutu berriaren hitzaurrean hala agertzen da) akordio positiborik izenpetzeko aukera dagoenik? Gure herriko inor fidatzen al da EAJz, beraren egiturak edo afiliatu kopuru jakin bat izan ezik (baita Espainiako eskuindarrak ere)? Baldin eta EAJz fidatzerik ez badago, zergatik ibili dira gezurretan mila aldiz eta bat gehiago? Zergatik dago Sortu irribarretsu Estatutuaren hitzaurrearen bidez EAJ harrapatu duelakoan? Duela urte asko inozoren batek pentsa zezakeen EH Bilduk EAJren burgesiari ziria sartu egin diola, alabaina, egia esateko, aipatu sinadurak eta bestelako zantzu batzuek erakusten dute haiekin eta haien modura gobernatzeko gogoia dutela, hau da, burgesia eusko-espainiarrarekin eta kapitalarekin batera.

Nola da posible edozein herri sektoretako militante batek herri mugimendua desegin duenaz fidatzea, alegia, auzo mugimendua, langile mugimendua (hainbatek Zainketa Intentsiboetako Unitatean utzi dutena), gizarte mugimendua, ikasle mugimendua edo salaketa eta solidaritate internazionalistan jarduten duten mugimenduak? Desegin du kapitalak dozenaka urte luzetan nahi baina ezin izan duena. Ikuspuntu iraultzailez jantzita dagoen inor fida al daiteke sistemaren auzokide berri horietaz?

Krisia gelditzeko iritsi da eta oso adierazle kezkarriekin; Ipar Amerika potentzia inperialistak gehienbat muga-zergen inguruan hartutako politikak eta neurriak eta milioi askoko zor publikoak eragindako zulo sakona. Munduko harrapaketa etengabea diseinuzko gerretan, besteak beste, Haifa, Riad, Londres, Berlin, Paris edo Washington. Herrialde subiranoetako azpiegituren eta kulturen suntsiketa. Gosetea, kolera, etsipena eta mendebaldearekiko gorrotoa (denborak esango digu noraino iristeko gauza den), eta zoritxarrez oraindik hastapenetan baino ez gaude. Datorkigunarekin alderatuz gero, bandera horiak txistea besterik ez dira. Hori dena guztiontzat, salbuespen batekin gure kasuan herrialde kapitalista batean bizi garelako, horrenbestez, gutariko askok oraindik daukagu bizirauteko nahikoa baliabiderik. Ez dugu inor iraintzeko asmorik bandera horiak direla eta, baina gerra inperialisten ezkutatzearen eta luzatzearen zatia dira nahi ala ez nahi.

Solidaritatea gure ogiaren edo haien ogiaren arteko hautaketa bihurtzen denean, zer egingo dugu? Ez da diskurtso populista edo faxista. Ogiaren lehia saihesteko modu batez egin daiteke soilik: egin dezagun euskal iraultza soziala (besteak beste) eta amaiera emango diegu gerra inperialistei eta haien ondorioei, hala nola, migrazioari, goseteari, kolerari, ezjakintasunari edo kultura judeo-kristauaren inposaketari. Langile klaseak, behekoek eta aliatuek, han-hemenka, botere iraultzailea bereganatzea baino beste irtenbiderik ez dago.

Ez ahaztu espainiar estatuak eta Euskal Herriak hiltzaile aitortuei bonbak eta ekipamendu militarra bidaltzeari eusten diotela, baina hemen gure eguneroko bizimodua aztoratzeko moduko ezer larririk ez da gertatzen.

Nork defendatuko ditu egiturazko arazo horiek eta haiekiko errotiko konponbideak udaletan nahiz diputazioetan? Inork ez du aldarrikatuko edo eskainiko produkzio-bideak maila guztietan gure esku hartzerik, eremu instituzionalean halako planteamendurik inork egiten ez duelako besterik ez, hala egin dutenak baztertuak edo birziklatuak izan direlako, eta huts egiten zaiena ez da diputatu edo zinegotzi izango.

Bozkatzearekin batera jakitun izan behar dugu, gaur egungo gauzak dauden bezala, sistemaren benetako tresna bilakatzen zarela nahi edo ez, eta zure bozka erabilia izango da, horrez gain, posible eta ezinezkoa denaren arteko eztabaida-dinamika dakarrela berekin, sistema betiketxe aldera. Bozkatzeari bera kuestionatzen ez bada, ez dugu arazoak errotik konpontzeko planteamendurik, horrenbestez, sistema kapitalistak eta beraren instituzioen beso luzeek modu batean edo bestean saihesten dituzten partxeak izango dira. Ez dezagun ahaztu kapitalak beldurtzeko baliabide ugari dituela eguneroko bizitzaren esparru guztietan geldi-geldi egon gaitezen.

EH Bilduko zenbait bozeramailek publikoki adierazitakoaren arabera, gobernatzeko prest omen daude... gauza jakina bada, zer dago prestasun horren barruan? Bada, gure iritzirako, hala izango balitz, gobernuan edo estatuan dagoen edozein alderdiren jardute bera egingo lukete, eta halaxe egingo dute. Inoiz ausartuko ez zirelakoan bageunden ere, ehunka gauza gauzatu dituzte eta ez da ia ezer gertatu. Tira, zerbait gertatzen da, baina baten batzuk, ez bozkatzeari gain, egingo dugunaz eztabaidatzen gari gara han-hemenka.

Zergatik diogu ez dela ia ezer gertatzen? Bada, kapitalak eta hedabideek partzialki eta handinahikeriaz ezkututzen duten arren, sistemaren klubera azken orduan iritsitakoak kezkaturik daude, eta EH Bilduz ari gara bereziki. Sisteman sartzeko gestioak kapitalari kontzesioak egitea ekarri ditu berekin, bai eta, Euskal Herriko langileak defentsarik gabe uztea ere (bereziki langile klasea), eta oinarriek halakoak asimilatu ote dituzten galdetzen diote haren buruari. Edonola ere, egin dutena (gauza batzuen aipamena egin dugu soilik) gehi zein egoeratan utzi dituzten euskal preso politikoak (bizimodua hala moduz ateratzea ala espetxean usteltzea) zer egiteko prest dauden zantzua izateaz gain, erakusten dute euren maila etikoa eta noraino iritsi nahi duten politika munduan.

Dagoeneko ezin dugu honelakorik esan: “ez dugu ulertzen zer gertatzen den”, “ETak jakingo du zer egin duen, izango ditu bere arrazoiak”... gauza bera Sortuk egin duenaz eta egiten ari denaz... edo “nik ez dut ezer ulertzen eta etxean geldituko naiz...” Bai, ederki, baina hurrengo urteetan zer egingo dugu? Nola defendatuko ditugu gure lurra eta gutarrak? Nola bideratuko dugu gure herria? Etxegabetzeen aurrean okupazioa? Onartuko al dugu beltzean lan egitea edo lan ez egitea kapitalak ezarritako kupoan sartu ez izanagatik? Noiz arte honako egoera honetan? Informazioa jaso eta antolatu bezain laster ekin diezaiogun okupatzeari. Horretan eta milaka gaietan ez digute beste irtenbiderik eskaintzen. Geroz eta pertsona gehiago ez da iristen hilabete amaierara, horrenbestez, ez al da jardunean hasteko nahikoa motibazio?

Alternatiba gutxi dagoela esango du norbaitek. Beste batek alternatibarik ez dagoela

pentsatuko du agian. Egon badaude bai, eta Euskal Herrian ezagutu eta praktikan jarriak izan dira, batzuetan lagun kopuru handiak hartu du parte auzo, herri edo obrako asanblada txiki eta handietan, hain zuzen. Noizbait arazoak taldeka landu dira eta irtenbideak bilatu... Ezinbestekoa da koordinaturik jardutea. Kapitalaren beso egile, politiko eta koertzitiboek jardun dezakete edozein dinamika sektorialen aurrean, baina borroka koordinatuen aurrean zailtasun handiagoak izango dituzte. Dei egingo genieke herri kontrabotere-enbrioi txikiei, horretara, ez ginateke ezein instantzia ofizialen edo alderdiren menpe egongo. Herrietako edo auzoetako arazo zehatzak lehenetsiko lirateke, nondik-norakoak jakin eta zer egin daitekeen erabakiko litzateke, aferari aurre egin eta konponbidea bilatze aldera. Gure ustez, ideia baliagarria da. Bestalde, bistakoa da konfiantza eta zintzotasuna ezinbestekoak direla kontu hau aurrera eramateko, eta, zer esanik ez, borondatezko lana izan beharra dago.

Horregatik guztiagatik eta gehiagorik, dei egiten dugu herrietan, auzoetan edo lantokietan antolatzeke eta abstentzio aktibo eta publikoaren aldeko aldarria egiteko. Aski da, iruzurrik ez! mendizerrako txaletik ez! nola edo hala kapitalari haien burua saldu dioten sindikatu eta alderdietako burokraziarik ez!

Dei egiten dugu informatzea, elkar ezagutzea, komunikatzea, eztabaidatzea eta erabakiak hartzea ahanzturan eta egunerokoetan ez uzteko, ezinbestekoak baitira gure bizitzan, bai eta, guregandik urruti baldintza kaskarretan bizi diren gizakien bizitzan eta gure atzetik etorriko direnean ere. Ez dago ezinezko ezer. Borrokatu gabe abandonatzen dena galtzen da bakarrik. Antolakuntza eta borroka. Euskal Herriko independentzia eta sozialismoaren alde, aurrera beti.

[Castellano]

“El artículo sobre la abstención que a continuación adjuntamos fue escrito y publicado a primeros de octubre del 2018. Es cierto que en estos meses han ocurrido muchas cosas sobre las que hacer hincapié, pero un artículo tiene sus límites. Subrayar las elecciones europeas que no se mencionaban y los cambios de fechas que han acaecido. Por lo demás, nos reafirmamos que Euskal Herria tiene que hacer su camino independiente que no puede ser otro que la revolución socialista vasca. Es el único planteamiento solidario pensando en el Pueblo Trabajador Vasco y en su clase obrera en particular”.

Abstención

Nos dicen, por activa y por pasiva que las elecciones en Euskal Herria sur serán alrededor de Mayo del próximo 2019. Elecciones para los ayuntamientos, las diputaciones de las vascongadas y las forales navarras. Ya veremos pero, en todo caso, las fechas no son el problema y no nos preocupan. Esos no son más que los espectáculos preelectorales que cada 4 años nos montan. Parece que es así y nada podemos hacer al respecto.

Hace tiempo que se veía venir a la compañía teatral al completo y cuando hacen desaparecer al MLNV y Sortu acepta la ley de partidos y se suma al club de los “buenos”, se acabó compaginar la dinámica político-militar, la lucha popular, la lucha social, la lucha obrera... con la lucha institucional. Y finalmente el complejo EH Bildu, descarta todas las luchas salvo

la decisión de integrarse definitivamente, al mas puro estilo reformista y pequeño burgués, en el sistema que nos ocupa y explota por medio de su circo institucional, económico, represivo y mediático.

Seremos claros e intentaremos ser breves. ¿Alguien piensa para qué vale nuestro voto si luego se enfadan porque la patronal no les invita? ¿Y qué harán para lograr ser invitados? ¿Quién iba a pensar que homenajearían a miembros de los cuerpos represivos, olvidándose de cientos de caídos por la independencia y el socialismo? ¿Qué significa la firma de EH Bildu con todo el parlamento español en comandita asegurando que las fuerzas de “seguridad” españolas son las que defienden “nuestra democracia” y “nuestra constitución española”? ¿A cuenta de qué se felicita a Trump por su victoria y por sus ejemplares elecciones democráticas? ¿Por qué cuando antes la Izquierda abertzale (hoy oficial) decía NO, a pistas para vehículos que casi no los utilizarán en parajes únicos de nuestra tierra y, ahora, dice si? ¿Alguien tiene una explicación suficiente acerca de la desaparición de Udalbiltza fuera a parte de ser una entrega/concesión a la soberanía española? ¿Alguien puede explicar por que desapreció ESAIT?

Porque eso de las políticas inclusivas... la unilateralidad y la horizontalidad y la diversidad, no son más que maniobras para ceder ante el capital y darle aun más poder. Pues todo eso nos tiene bastante hartitos/as. Lo mismo que esto es posible y eso es imposible. Lo que es posible es lo que le interesa al sistema, y al revés. Ya es Casualidad. Basta ya de esconder la lucha de clases con argumentos de la pequeña burguesía.

¿Alguien piensa que EH Bildu va a defender a la clase obrera vasca hasta sus últimas consecuencias, o Ahal dugu/podemos con las hipotecas de los chalets de sus direcciones? Alguien piensa que aceptando la partición de Euskal Herria (el preámbulo del nuevo estatuto firmado por EH Bildu y el PNV lo hace) se puede firmar algún acuerdo en positivo. ¿Hay alguien en este país que además de las estructuras del PNV y cierto numero de afiliados (más las derechas españolas) se pueden fiar del PNV? Si no hay modo de fiarse ¿por qué nos han engañado mil y una veces? ¿por qué Sortu sonríe pensando que le han pillado al PNV con esta firma del preámbulo del Estatuto? Hace muchos años algún ingenuo podría pensar que EH Bildu le ha engañado a la burguesía del PNV, pero lo cierto es que esa firma, junto con muchas otras señales, supone el deseo de gobernar como ellos y con ellos, es decir con la burguesía vasco-española y el capital.

¿Quién que milite en los diferentes sectores del movimiento popular, en el movimiento vecinal, en el movimiento obrero (que ya se han encargado varios de dejarlo en la UCI), en el movimiento social, en el movimiento estudiantil o en dinámicas de denuncia y de solidaridad internacionalista puede fiarse de alguien que ha desecho todo ello? Ha desecho todo lo que el capital quería y durante largas decenas de años no había podido ¿Es que alguien con planteamientos revolucionarios se puede fiar de esos nuevos inquilinos del sistema?

La crisis ha venido para quedarse y hay índices muy preocupantes. Las políticas y medidas arancelarias tomadas sobre todo por la potencia imperialista de los Estados Unidos de América del Norte y su gran agujero negro que supone la multimillonaria deuda pública. El continuo saqueo mundial mediante las guerras diseñadas en Tel-aviv, Riad, Londres, Berlín

Paris o Washington. La destrucción de infraestructuras y culturas de países soberanos. Hambre, cólera, desesperación y un odio hacia occidente que el tiempo nos dirá hasta dónde puede llegar. Y por desgracia esto no ha hecho más que empezar. Para todos y todas pero con la salvedad de que nosotras vivimos en un país capitalista y todavía tenemos, muchos y muchas de nosotras, medios de subsistencia. Y no queremos ofender a nadie con lo de las banderas amarillas (simbología de acogida para los que huyen de la guerra), pero son parte de la ocultación y prolongación de las guerras imperialistas lo queramos o no.

¿Qué haremos cuando la solidaridad se convierta entre nuestro pan o el de ellos y ellas? Y no es un discurso populista o facha el que planteamos. Solo hay una manera de no disputarse el pan. Hagamos la revolución social vasca (entre otras) y acabaremos con las guerras imperialistas y con sus consecuencias como son la migración, el hambre, el cólera, la incultura o la imposición de la cultura judeo cristiana. No hay otra solución viable que la toma del poder revolucionario por parte de la clase obrera, de los de abajo y sus aliados, aquí y allí. Y no olvidemos que el Estado español y Euskal Herria siguen mandando bombas y equipamiento militar a asesinos declarados sin que aquí pase nada grave que revuelva nuestras vidas de diario.

¿Quién va a defender, y aportar soluciones de raíz, en los ayuntamientos o diputaciones a todos los problemas estructurales que padecemos? Nadie reivindicará ni nos ofrecerá coger en nuestras manos los medios de producción a todos los niveles. Simplemente porque ya no hay nadie en ese ámbito institucional que lo plantee. O les han apartado o se han reciclado. O se han ido.

Hay que ser consciente que votando, tal y como están las cosas hoy en día, te conviertes, quieras o no, en una auténtica herramienta del sistema. Se utilizará tu voto y lo que conlleva, esa dinámica de discusión de lo posible e imposible, para perpetuar al sistema. Si no se cuestiona el hecho mismo de ir a votar no estamos planteando solucionar los problemas de raíz. Serán parches que el sistema capitalista y sus largos brazos en las instituciones los sortearán de una u otra manera. Sin olvidar que, diariamente, al capital le sobran miedo y medios para asustarnos en todos los ámbitos de la vida con el objetivo de que estemos bien quietos.

Es público que voceros de EH Bildu han manifestado públicamente que están dispuestos para gobernar... ¿Qué pensamos que encierra esa disposición? Eso quiere decir que si llega el caso harán lo que tenga que hacer cualquier partido de gobierno, de Estado. Y ellos lo harán. Hay cientos de cosas que pensamos que nunca se atreverían a hacer y lo han hecho y no ha pasado casi nada. Bueno, pasa que aquí y allí estamos gentes debatiendo que hacer además de no votar.

Y decimos que no pasa casi nada porque aunque lo oculten parcialmente a nivel grandilocuente tanto el capital como los medios de comunicación, algunos que han llegado a última hora al club del sistema, si están preocupados. Y hablamos de EH Bildu sobre todo. Se interrogan si la gestión de entrada en el sistema, con lo que conlleva de concesiones al capital y falta de defensa del pueblo trabajador vasco y su clase obrera en especial, están siendo asimilados por sus bases. De todos modos, con todo lo que han hecho ya (solo hemos mencionado algunas cosas), más dejar a los presos y presas políticas vascas que se busquen

la vida o se pudran en las cárceles, es una señal de lo que están dispuestos a hacer y denota el calado ético y el alcance político de hasta dónde quieren llegar.

Y ya no podemos decir aquello de que “no entendemos lo que pasa”, “ETA sabrá lo que ha hecho, sus razones tendría”... lo mismo sobre lo que ha hecho y está haciendo Sortu...o “yo no entiendo nada y me quedo en casa...” Ya. Muy bien. Y durante los siguientes años ¿qué hacemos? ¿Cómo defendemos a nuestra tierra y a nuestra gente? ¿Cómo manejamos Euskal Herria? ¿Ocupamos cada vez que haya desahucios? ¿Vamos a admitir que alguien trabaje en negro, o que no trabaje porque no entra en el cupo establecido por el capital? ¿Hasta cuando esta situación? Ocupemos en cuanto nos informemos y organicemos. No nos ofrecen otras salidas en este y en otros mil temas. Cada vez hay más gente a la que no le llega para el final de mes. ¿Es que eso no nos motiva para pensar en actuar?

Alguien dirá que muchas alternativas no hay. Alguien pensará que quizá ninguna. Sí las hay y en Euskal Herria las hemos conocido y practicado. A veces entre bastante gente. Eso no es otra cosa que las asambleas de barrio, pueblo o tajo. Pequeñas y grandes. A veces incluso con grupitos de gente trabajando diferentes problemas y buscando soluciones... Coordinados/as. Eso es imprescindible. El capital, sus brazos ejecutores políticos o coercitivos pueden actuar ante una dinámica sectorial pero lo tendrán más difícil si las luchas se coordinan. Llamariamos a eso pequeños embriones de contra poder popular. Es decir que no tendríamos que depender de ninguna instancia oficial o de partido. Lo que primaria saber es lo que ocurre en un pueblo o barrio ante una problemática concreta y a ver qué podemos hacer para encararlo y solucionarlo. Creemos que como idea puede valer. Es evidente que la confianza y la honradez son elementos imprescindibles para poder llevar todo esto adelante. Y ni qué decir tiene que el trabajo habrá de ser voluntario.

Por todo ello y más, hacemos un llamamiento a organizarnos en pueblos, barrios o centros de trabajo para hacer un planteamiento claro a la abstención activa, pública y revolucionaria. Basta ya de farsas, de chalets en la sierra, de burocracias de sindicatos y partidos vendidos, de una u otra manera, al capital.

Hacemos un llamamiento a no dejar en el olvido y en los problemas del día a día, esta forma de información, de conocernos, de comunicación, de debate y de toma de decisiones. Estas son vitales para nuestras vidas, para las de otros seres humanos que malviven lejos de nosotros y para los que vendrán detrás de nosotros. Nada es imposible. Solo se pierde lo que se abandona sin lucha. Organización y lucha. Por la Independencia y el Socialismo para Euskal Herria, siempre adelante.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/abstentzioa-nabstencion